BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4194

AGINDUA, 2012ko uztailaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Fundación Hazi fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa onesteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi da, eta aztertu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko uztailaren 12an, eskabide bat sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailean, non Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari eskatzen baitzitzaion fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa inskribatzeko. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek espedientea berriro aztertu, eta, ondoren, erabaki-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikulua.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Hirugarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 23 bis artikuluaren arabera (azaroaren 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen lege horren testu bategina), Fundación Hazi fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioa da, eta bere estatutuen aldaketarako behar den baimena eskatu dio Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Baimena 2012ko ekainaren 12ko bilkuran eman zen, hala dago jasota Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak, María Jesús San José López andreak, 2012ko ekainaren 13an egin zuen ziurtagirian.

Laugarrena.– Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 6an barne-merkatuko zerbitzuei buruz eman zuten 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko, hainbat lege aldatu zituen apirilaren 23ko 7/2012 Legeak. Lege horren 106. artikulua betez, aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 12/1994 Legea, zehazki, 31. artikuluaren 1. paragrafoa: «Aldatzea». Hori horrela, fundazioak babeslaritza-eginkizunean dituen helburuen aldaketa berariaz onartzeko, espedienteari Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariaren Ebazpena erantsi zaio.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Abandiñoko (Bizkaia) Fundación Hazi fundazioaren estatutuetako 1. artikuluan (Eraketa, izendapena, iraupena eta baliabide instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa), 3. artikuluan (Fundazioaren xedea eta helburua) eta 8. artikuluan (Onuradunak) egin diren aldaketak inskribatzeko agintzea, agindu honen data dutela, 2012ko ekainaren 19an Donostiako notario Enrique García-Jalón de la Lama jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 660.)

Estatutuetako 3. artikuluan egin den aldaketaren ondorioz, hauek izango dira, aurrerantzean, fundazioaren helburuak.

«3.Artikulua.– Fundazioaren xedea eta helburua.

Fundazioak bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea du xede eta helburu. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zaindu.

Fundazioak, xede hori betetzeko, kalitatezko zerbitzu osoa emango du bere jardun-esparruan, hartan diharduten eragile eta erakundeekin elkarlanean. Fundazioak, bere jardun-esparruan, honako jarduera hauek egin ahal izango ditu:

a) Kalitatez bereziak diren nekazaritzako eta arrantzako elikagaiak garatu eta bultzatu, kalitateari eta jatorriari dagozkion bereizgarriak erabiliz.

b) Nekazaritzako eta arrantzako elikagaien jatorria, segurtasuna, benetakotasuna eta kalitatea bermatze aldera, haien ziurtapena eta kontrola egiteko sistemak ezarri eta aplikatu.

c) Sustapenari, zabalkundeari eta informazioari begira, era guztietako jarduerak aurrera eraman.

d) Akordioak eta jardunak bultzatu eta sustatu, jardun-esparruko eragileak eta sektoreak egituratzeko eta elkarlanean aritzeko.

e) Enpresa-ekintzailetza eta enpresa-proiektuen laguntza bultzatu eta sustatu.

f) Europar politikak eta programak zabaldu, eta, nazio-mailan eta nazioz gaindikoan, lankidetzarako proiektuak garatu.

g) Landaren eta itsasertzaren garapena bultzatu (inguruneko gizartea eta ekonomia biziberritzea helburu duten jardunak sustatuz).

h) Sektorea antolatzeko politikak eta planak egiten, garatzen eta kudeatzen parte hartu.

i) Nekazaritzan eta itsas arrantzan aritzeko gaitasuna bultzatu, berariazko prestakuntza-programen bidez.

j) Teknologiari eta antolaketari dagokienez, berariazko konponbideak planifikatu, koordinatu, garatu eta ezarri, eta, produkzio-, merkaturatze- eta transformazio-prozesuak hobetze aldera, sistema informatikoak diseinatu eta ezarri.

k) Estatistikako proiektuak diseinatu eta gauzatu, eta metodologiaren, teknikaren, kartografiaren eta sozio-ekonomiaren arloko azterlanak diseinatu eta gauzatu.

l) Lurraldeak eta ingurumenak zer baliabide dituzten jakiteko, aztertzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko, proiektuak diseinatu eta garatu, banaka edo modu bateratuan; baliabide horiek kudeatu, baina, batik bat, natura-gune eta espezie babestuekin lotutakoak.

Xedea eta helburua garatzeko eta betetzeko, fundazioak hauek egin ahal izango ditu:

a) Bere helburuak betetzeari begira, era guztietako jarduera ekonomikoak garatu, edo baliabideak eskuratu.

b) Era guztietako ondasunak eskuratu, besterendu eta eduki, edozein tituluz, eta era guztietako egintzak eta kontratuak egin.

c) Era guztietako akzioak baliatu, betiere legediari edo bere estatutuei jarraituz.»

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 19a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.